

## Kospeiak



**ENEKO GORRI**  
EUSKARA TEKNIKARIA

**B**ederatzi kilometroko distantzia daukat etxetik bulegora. Baina distantzia labur horretan, negutik honat bost obra publikorekin egin dut topo. Hondartzarako errepidea berritu, akanpaleku aitzineko espaloia handitu, oinezkoen zirkuitua inauguratu, herriko plaza itxuraldatu, merkataritza zonalde atarian aparkalekua gehitu...

Orain aldiz, bildu dira obra-panelak eta pala mekanikoak. Polit-polit jarri dira bide bazterrak, landatu dira loreak, berriz tindatu dira paretak. Dena prest, Lapurdi kostaldera bakantzetara etorririko diren udatarrentzat. Bi hilabetez, bi milioi turista metatutako dira 30 km luzerako lur zati hertsu batean. Auto-metatzeak bideetan, oinezkoen karrikak saturatuak, inflazioak ostatuen prezioetan, folklorizazioa ikuskizun bizietan... Urtero 5,3 milioi turista datoz 300.000 biztanleko lurralde batera. 2.300 enpresa eta 9.100 langile "turismoaz bizi" direla saltzen digute instituzioetatik.

Gordinki pairatzen ditugu gaur duela 50 urte Paristik diseinatutako turistifikazio politikaren emaitzak. Alta, munduko txoko desberdinetan masa-turismoaren desmasiak salatzen diren garaiotan, 80-90eko hamarkadetara itzuli behar dugu horren kritika zorrotza entzuteko gurean. Larriago, uda bu-

kaeran izanen den G7aren kontrako argumentuen artean, hautetsi abertzale batzuk sasoi turistikoan izanen duen eraginaz kezkatu dira berriki.

Ez ote dira biak txanpon beraren bi aldeak? "Euskal Herriari mundu osoko ospea" hitzematzen diotenez, ez ote dute oporleku baten marka mundu osoko merkaturian balioztatzea anbizio? Berezko lurralde izan aitzin, Ipar Euskal Herria promozionatu beharreko helmuga bilakatu da agintari batzuentzat. Lurralde markatutako politika publikoei gaina hartu die.

Munduko kontinente frangotan bidaiatzeko xantza izan dut. Nire inkoherentziez kontziente, badakit bidaiatze soilarekin lurralde horien akulturazioan hartu dudala parte. Badakit ere borroka sozialen ondorio direla opor sarituak eta bidaiatzeko aukerak. Turistak *kospei* deitza, frantsesezko *congés payés*-tik dator, demokratizazio baten oinordetza.

Baina badakit ere ikusi beharrekoen zerrendetatik eta *selfie*-tatik harago, beste turismo bat posible dela. Gure herriak badu zer transmititu, desitxuratu gabe. Ikastolako guraso berria, herrira bizitzera etorri den familia, Baionatik pasatzen den etorkina edo zazpi egun Euskal Herrian gaindi ibiliko den turistarentzat, badugu inklusio eredu bat kolektiboki asmatzeko beharra. ●

## Banderak



**LEIRE NARBAIZA**  
ARIZMENDI  
IRAKASLEA

**B**anderak trapaak besterik ez dira", aldarrikatzen dute munduko hiritarrek, inongoak ez, eta toki guztietakoak direnek. Bitxia da, baina halakoak beti izaten dira estatua daukaten banderapekoak.

Gurean ere zabaldu da jarrera hori sektore independentista batzuetan. Ikuurrina alboratu dugu, modernoagoak garrelakoan, bandera horri zaharkitu usaina hartzen zaiolako, instituzionalizatu egin delako EAEn, eta Ipar Euskal Herrian ikurrina produktu turistiko bihurtu delako, gainera.

Egia da gurutzebikoa Sabino Aranak diseinatu zuena, eta berak sortutako ia

guztiari itxura zahitsua hartzen diogula. Era berean, ezin dugu ahaztu sektore espainiarrek etenbarik errepikatzen dutela bandera asmatua dela, beste guztiak zuhaitz batetik irten izan balira bezala!

Argi dago bandera bat behar dugula, guk muzin egin arren, estatu guztiek tinko eusten dietelako eurenei. Gurea ikurrina izan behar den? Baiezekoan nago. Artzain Onaren katedraleko eskalatzaileak (eta beste batzuek) hartutako arriskua gogoan eta bihotzean (aita nuen) izateaz gain, oraindik ere Iruñean ikur hori askatasun iturri delako. ●